

Espainiako Halterofilia txapeldun da Bruno Soto

Bagilaren 8-9ko astegoienean jokatu zan Ourensen Espainiako Federazioen arteko Halterofilia Txapelketea eta Bruno Soto lemoaztarra 89 kiloko kategoriako irabazlea izan zan, estatu mailako bere bederatzigarren titulua lortuz.

Junior mailako errekorra be ezarri eban, denpora bitako proban 180 kilo altxauz. 137 kilo jaso ebezan urtenaldian; osoko olinpikoan 317 kilo lortuz. **10. orrialdea**



Sanjuanak eta sanpedroak ate joka Bedia, Ubide, Arantzazu eta Diman

Bedia eta Ubideko jaiak dira sanjuanak eta Arantzazu eta Dimakoak sanpedroak. San Juan bezperan, suaren inguruan ospatuko da udako solstizioa.

Bedia eta Ubideko jaiak hilaren 21etik 24ra izango dira eta herri bietan, 23an, gaua ondo sartuta dagoanean isiotuko dabe sua eta inguruan ibiliko dira herrikoak kantuan eta jantzan. Arantzazun eta Diman barriz, hilaren 27tik 30era ospatuko dabez sanpedroak. Kilimak eta Moonshine Wagon taldeen kontzertuak egongo dira Arantzazun bariku gauean eta The Clayton eta Los Zopilotes Txirriaos taldeak Diman, zapatu gauean. Igorreko San Juan auzoan eta Zeanuriko Alzuaga auzuneetan be, besteak beste, jaiak dira sanjuanetan; eta Zeanuriko Undurragan sanpedroetan. **5. eta 7. orrialdeak**



DIMA

Dimener, energia barriztagarrien komunidadea sortu dabe

Klima aldaketeak planetan eta gizadian eragiten dituan ondorioei aurre egiteko transizino energetikoaren bidez sortu da Dimener, "jentearen konzientzia eta kultura aldatu eta gure eskuetan dagoana egiteko". **6. orrialdea**

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Europako Parlamentuan indartu egin da eskoï muturra

Bagilaren 9an, 27 herrialdeko herritarrek 720 eurodiputadu aukeratu ebezan. Eskoiak eta eskoï muturrak gora egin dabe. Arratia, Ubide eta Zeberion, BEGIturen eremuan, EH Bildu izan zan lehenengo indarra (2.857 boto) eta EAJ, bigarrena (2.553 boto). **8. eta 9. orrialdeak**

LEMOA

Lemoako eskolako patioa aldatzeko prozesua abian

Galdetegia banandu, talde eragileak sortu eta batzarrak egiten hasita dagoz Lemoako eskolako patioa barriztu eta inklusiboago egiteko. 2024-2025 ikasturtean zehar osotuko da diseinua eta lanak 2025eko udan egitea espero da.

HH, LH eta DBHko ikasleek konpartiduten dabe patioa eta eskolako ordutegia amaitutakoan, hainbat kultura eta kirol ekintza egiten dira herritarrentzat.

Proiektua azaldu eta galdetegia dakarren foiletotxoak euskeraz, gaztelaniaz eta arabieraz, arabieraz QR baten bitartez, banandu da etxetan **5. orrialdea**



ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO
GARAPENEAN LAGUNTZEN



Promozioak, pisuak,
etxeak, baserriak,
lurrak, txaletak...

ARRATIAKO BAZTERRAK
ZEIN POLITAK DIREN!

Lehendakari Agirre, 8 behea · 94 631 80 04 · IGORRE
igorre@inmolarrea.com
www.inmobiliarialarrea.com
WhatsApp 660 452 420

Literatura txokoa

CHRISTOPHER OKIGBO

Unibersidade tertzioa, Bilboko Zabalgunea, sukursal artean, bigarren eskuko liburu denda baten argi mehea. Bazter baten, bazterrekoenak: *Afrikar poeta garaikideak* (erderaz, Biblioteca Júcar). Niretzat, urte askoan, itsa-sargi baten antzekoa izan zan ha liburua: Agostinho Neto, Noemia de Souza, Wole Soyinka, Jacques Rabemananjara... eta Christopher Ifekandu Okigbo.

1932an jaio zan Ojoton (Nigeria), Igbo eskualdean. Ez Nigeriarik, ez Kamerunik, ez Beninik, ez ezer ez zan egongo han kolonizazinorik egon ez balitz (Euskal Autonomia Erkidegorik egongo ez zan moduan, menperaturik ez bagengoz).

"Ama Idoto, biluzik nago/zure

aurrean zutik/zure presentzia urtsuaren aurrean".

Christopher Okigbo 1967an hil eben, Biafraren aldeko burrukan, Nigeriaren kontrako gerran soldadu ebilela.

Karmen Irizar Seguroлак Okigboren indar telurikoa euskerera itzultzea lortu eban kaiera hone-tan, Afrikako poesiatan purutasuna eta zeruen infinitua ekarrita, akordau arazoz gu ez garala ezer urtaroen eta landareen izerdiaren aldean. Christopher Okigbok gerizpeakaz berba egiteko tanborra asmatu eban, nahiz eta ingelesez egin (igboeraz be bai, arean): "Txori magikoek tximistargiaren miraria lumetan...".

Eurozentrismoaren eta sus-traiaren artean harrapauta, Okigbo

Afrika egiten dabilan bide luzearen beste adibide bat da. *Elegy for Alto (Altorentzat eresia)* izan zan bere hil-buruko testamentua, eta oindino kantetan dabe bere herrian: "Hemen dira politikariak generadoreen, morteroen burdinazko dantza honetan...".

Bigarren eskuko liburutendan, zerk eroan ete eustan bazter haretara, bazterrekoen txokora? Oindino atzen berbea esan ez dauan Afrikako kontinenteko ahotsak izango ziran beharbada. Edo osterantzean deltako igel handiak: ai! ei!, ilargi-min.

Igor Estankona



Itzulpena: Karmen Irizar Seguroлак

Christopher Okigbo

Susa argitaletxea, 2021

64 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Bagilaren 17tik 23ra

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Bagilaren 24tik 30era

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.

Garagarriaren 1etik 7ra

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Gometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /
mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / *gorbeialde@gorbeialdea.com*

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / *kulturetxea@igorre.net*

Euskotren 94 433 33 33 / *euskotren.eus*

Areatzako Notariatza 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / *info@erota.eus*

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / *www.arratiakomusikaeskola.eu*

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduro.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20ra orduro.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urteten dau Gasteizetik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** *begitu@begitu.eus*. **Webgunea:** *www.begitu.eus*. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** *inigoirua@begitu.eus*. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** *beazpiri@begitu.eus*. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** *asierabrisketa@begitu.eus*. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresa (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Jokin Totorika (Arantzazu, Areatza eta Artea) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daiteke, beti be iturria aitatzuz eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskertronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (XLVIII).
Kale berbakunea sustatu guran

IGORREKO JAIK

- Aupa hi!
- Aupa, askorik egiteko gogorik **etxekoat**, e!
- Jaietako minakaz **hago** ala?
- Buruko mina **jekoat** galanta, hori bai!
- Kar, kar, kar!
- Hi **haz** hi izatekoa!
- Berotu egin **nintzoan** eta... **badakik**...
- Berandu arte ibili **hintzen** ala?
- Goizera arte hobeto esanda!
- Kar, kar, kar!
- Eta oin ajeagaz egon ezinik...
- Ea hurrengo astegoienerako ikasten **bok** eta zintzoago **bahabil**!
- Etxakiat** ba! **Etxoat** ezer jokatuko badaezpada!

ERETXIA

Eskolako
sukalde eredua

2023ko abenduan, Areatza lantzen udal aldizkariak Areatzako eskola barriztatzeko lanen amaiearearen barri emon euskun.

Aurtengo maiatzaren 16an, BEGITU, Zeanuriko eskolan sukalde barria estreinau dabela argitaratuta irakurri dogu, eta baita Areatzako eskolako sukaldea datorren ikasurtean martxan hasiko dala be.

Bagilaren 5ean, Dimako eskolak, kontseiluko aktan, Hezkuntza Sailak sukalde barri baten ordainketea bere gain hartuko dauala jakitera emon deusku.

Bagilaren 11n, sindikatuagaz hartu-emonetan ipini ginan eta ondokoa esan euskuen: "Administrazioak Hezkuntza Saileko sukaldariz horniduko ditu urtero janaria bertan (*in situ*) prestatzen daben zentroak, ikastetxeek hola ebazten badabe".

Herri eskoletako sukaldeak diru publikoz eginikoak eta barriztuak dira eta bertako sukaldariak Hezkuntza Saileko zerrendetako sukaldariak izaten dira (salbuespen batzuk dagoz). Hezkuntzako zerrenda horreetan egoteko, ezinbestean, sukaldari ikasketak edota sukaldari esperientzia egiaztatu behar izaten dira besteak beste.

Gure umeek bertan prestatutako janaria bazkaltzen dabe Zeanurin, Diman, Areatzan (datorren kursoan), Otxandion, Igorren, Lemoan, Orozkon, Zeberion, Zornotzan, Galdakaon, Gernikan, Iurretan, Durangon, Markinan eta beste hainbat *in situ* sukaldedun eskoletan. Gaitik urrundu bari, ohartxo bat, eskola batzuek gainera bazkariak bertako produktuakaz (Km 0) prestatzea lortu dabe edota bidean dagoz, esate baterako, Otxandio, Gernikako Allende eta Markinan lortu dabe tokiko produktuak zerbitzatzea, eta Igorreko eskolan lan eta lan dabilz lortzeako. Esandako lau sukalde honeek ez-pribaduak dira, hau da, sukaldariak Hezkuntza Saileko langileak dira.

Baina ez daigun haria galdu,

ARRATIAKO
SUKALDARIAK

arratiakosukaldariak@gmail.com

gorago esan legez eskolako sukaldariak Hezkuntza Saileko langileak izaten dira baina salbuespen batzuk dagoz, Arratiako salbuespenak Dima, Areatza eta Zeanuriko eskolak dira. Sukaldea eskola publikoan egon arren, diru publikoagaz egin arren, eta sukaldea eskolako zerbitzu publikoa izan arren, eskolako sukaldea enpresa pribaduen esku dago, Catering enpresen esku, hain zuzen.

Eskola kontseiluaren parte udal ordezkari bat izaten da, eskolako eraikin osoan egiten diran barriztapen edo mantenimentu lanak udalari kudeatzea jagokoz. Herri txikietan batez be eskolako sukaldearen kudeaketearen ebatzia hartzerakoan udalak zerikusia izaten dau.

Hori holan izanda, Dimako, Areatzako eta Zeanuriko eskolek pribatizazioaren aldeko apustua egin dabela esan beharrean gagoz. Datorren kursoari begira aldatzeko asmorik badabe aukerea daukie, edo Hezkuntza Sailak hori dino behintzat.

Bururatu be ez jaku egiten publikoa alde batera itxi eta enpresa pribaduaren besoetara joatea. Orduan, zer dabil gertatzen? Zerbitzu publiko batzuk bigarren mailakoa dira ala? Eskolan klaseak emoteko irakasleak Hezkuntza Saileko zerrendatik hartu beharrean akademia batetik hartzearen aurka egongo ginateke, baina sukaldea edota garbitzaileak pribatizetearen alde gagoz? Zelan izan daiteke hori?

Zer eredu da? Publikoaren alde ahoa beteta gabilz, zerbitzu publikoak pribatizetearen kontrako pankartak daukaguz, umei publikoaren alde burrukatzeko erakusten deutsegu, baina zelan? gero herriaren jardunean pribatizazioa mantenduten?

Hori da gure seme-alabentzat gura dogun eredua ala heldu da, behingoz, koherentziaz jokatu eta pribadua itxi eta zerbitzu publiko-ara aldatzeko unea?



LUMATUTEN



GONTZAL MENDIBIL

Iparragirre
Urkiolan

1854ko bagilaren 13an, sanantonioetan, Urkiolan 6.000 ikusleren aurrean kantau eban Iparragirrek, besteak beste, *Gitarra zahartxo bat* eta *Gernikako Arbola*. Hango zantzoak, deiadarrak, txalotzeak eta txapela-jasotzeak ondorioak euki ebazan bere bizitzan. Egaña izeneko diputadu liberalak Madrileko Gorteetan azaldu eban bertan jazo zana. Lasterre, kartzeleratua izan zan eta Euskal Herritik desterratua. "....ez etortzeko gehiago probintzi honetara, orduan hartu nuen Santander aldera".

Ia hogei urtez Ameriketara Uru-guaiko lurretan, heriminezez egon zan eta bere jaioterrira etorteko gogoa bizitu jakon; baina honantza etorri zanean, gauzak oker egozan, euskerearen erabilereak itzelezko beherakadea egin eban. Berak idatzia da gaur kantetan doguna eta zorionez egia bihurtu ez dana. "Ez bedi

galdu euskera nere anaia mai-teak, galtzen badegu galduak gera gu eta gure semeak...".

Iparragirrerena historia, modu artistikoan, zeauriztarrok eta arratiarrok, gertutik bizi izan genduan oin 32 urte, beraz, adin batekoek ondo gogoan daukie Undurragako landetan bizi izandakoa, ilargi betea genduan lagun eta bertako artisten gogoz eta herritar guztien partaidetzeaz eta ilusinoz atera zan aurrera. Han parte hartu izan ebenetatik, hainbat joan jakuz. Baina betirako gogoan izango doguz eta memorian gelditu jaku gure *Iparragirre Hegalaria*.

Halakorik gaur egiterik bai?, esaten deuste sarritan. Gatxa, ez dakit gogorik legoken eta politikarien kudeatzaileak inplikauko leitekezan. Ez dot uste.

Urkiolan 1854an bizi izandakoa, kontzertu legez egiteko asmotan gengoan aurtengo sanantonioetan, baina badi-rudi gaur, historiatic eta kulturatic urruntxo dagozala gure politikaren ordezkariak eta kudeatzaileak. Holan dira gauzak, momentuan momentukoa di-noe gaurkoek; zentzu askotan, gainbeheran ete goaz ba?

ZERTZEAN



SAIOA LARREA



BEGI TXINDORRA

Mikel Etxabururen *Manttalingo alaba* poema liburuan oinarritutako ikuskizuna Saturraranen egin zan, andren kartzela egon zan lekutik hur. Han, frankisten kartzelan 1937tik 1944ra 4.000tik andra eta umetik gora egon ziran preso baldintza sano gogorretan eta euretatik 177 hil egin ziran bertan. Etxabururen *Manttalingo alaba* euren omenez da.

Emonaldi musikatuan, idazle ondarrutarrak, poema aukeratu batzuk irakurten dauz. Errezitau ostean, akordeoia eta bibolinaren musikeagaz, Nerea Zuloaga Areatzako abeslariak kantetan dauz poemok. Ikuskizunaren lantaldean beste billaroztar bat be badago, Jon Ordeñana eta Saturraranen Arratia osoko jentea egon zan.

Musikea, poemak eta abestiak ederrak dira; ikuskizuna, hunkigarria. Saturrarango emonaldian, Meat Loaf-en kantua parafraseauz, "ez egoan begi siku bakar bat be".

Oroitze ariketa bat da ikuskizuna; "oroitzen dogun hori gara" dino idazleak, "oroitzen ez dana ez da inoz gertatu". Eta kartzela haretan gertatutakoa gogora ekarri gura bada, da inoz barriro ez gertatzeko. Historia errepetidu ez daiten.

Orduantxe, danok izan ginan konsziente gerrearen krudelkeriaz, suertea izan dogula holangorik bizi izan ez izanaz, eta gure ondorengoek be gerrarik ez bizitea gurako geunkela pentsau genduan.

Baina momentu honetan munduan 56 gerra dagoz aktibo. Euretako bat, Gazakoa, egunero ikusten dogu albistegietan; beste bat, Ukrainakoa, European daukagu. Milaka Saturrarana gertatzen dira Gazan, eta Ukrainako gerrea, gogortzen doa eta Europa osora zabaltzeko arriskua gero eta handiagoa da. Ate joka daukagu. Eta pazifismoa desagertuta dago.

Barriro be egingo dogu negar gerreagaitik. Ez iraganeko gerra bategaitik, hemengo ume eta gazteak hiltzen dauan gerra bategaitik baino.

Gerrearen izugarrikeriak memorian izan arren, historia errepetidu egiten dalako.





Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com



BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17	Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24	Goldor 666 58 20 06

Pozueta poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com



agoa
hagin klinika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologoa

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bidaka
T. 94 631 50 39
Idazgaitza Zerbaita: 900
R.P.S. 31/06

BEDIA

Jone eta Jon Beringaren jatsiereak emongo deutse hasikerea Bediako jaiei

Erredakzinoa

Barikuan, hilak 21, 19:30ean, botako dabe Bedian jaien hasikerako txupina, eta horregaz eta Jone eta Jon Beringaren jatsiereagaz hasiko dira San Juan jaiak. Motorrak berotzeko, aurreko domekan, bagilaren 16an be egon zan jai giroa XXI. Eskulangintza eta Elikagaien Azokeagaz, gaiteruak eta erromeriagaz, besteak beste.

Bediako jaietako akaso momenturik bereziena, San Juan bezperako gauerdiko sua izango da. Musikarik be ez da faltauko, eta Akerbeltz eta Oxabi erromeria taldeek animauko dabez gauak. Domekan, urteroko antxinako auto eta motorren erakusketea eta *slaloma* egongo dira.

Bagilak 21, barikua

19:30ean, jaien hasikerako txupina, trikitixeagaz alaituta, Jone eta Jon Beringaren jatsierea eta sardina jana. 20:00etan, Pantxo Mexikarra. 22:30ean, Jauziri jantza taldea. 23:30ean, playback-a. 24:00etan, Oxabigaz erromeria.

Bagilak 22, zapatua

12:00etan, XV. Paella Lehiaketarako izen-emotea. 14:00etan, paellak aurkeztu. 17:00etan, Mus Txapelketea. Bakotxak antolatuta, 18 urtetik gorakoentzat. 17:00etan, bazkalosteko bingoa 18 urtetik gorakoentzat. 17:00etan, umeentzako tailerrak

eta buruhandiak. 22:30ean, Akerbeltz-egaz erromeria. 02:00etan, DJ A&B. Gune morea 17:00etatik 19:00etara eta 22:00etatik 05:00etara.

Bagilak 23, domekea

12:00etan, VIII. Antxinako Auto eta Motorren erakusketea. 12:00etan, pintxo-potea txosnetan. 16:00etan, Bediako *slaloma* Club Automovilistico Bizkaia antolatuta San Lorentzo poligonoan. 19:00etan, Tortilla Lehiaketarako izen-emotea. Osogaiak: patatak, arrautzak, orioa eta gatza. 20:30ean, tortillen aurkezpena. 21:00etan, herri afaria. 22:00etan, Altxaporrugaz erromeria. 24:00etan, San Juan sua.

Bagilak 24, astelehena

11:00etan, meza nagusia. 12:00etatik 14:00etara, umeentzako puzgarriak. 17:00etatik 19:00etara, umeentzako puzgarriak eta bitsaren jaia. 17:00etan, XXXVI. Briska Txapelketea (bikotekide bat behintzat Bediako). Izen-emotea 6 euro bikoteko. 18 urtetik gorakoentzat. 20:00etan, txokolatea eta jaien amaierako txupina.



LEMOA

Lemoako ikastetxeko patioa eraldatzeko prozesua martxan da

Galdetegia banandu, talde eragilea sortu eta batzarrak egiten hasita dagoz

Lemoako eskolako patioa barriztu eta inklusiboago egiteko. 2024-2025

ikasturtean zehar osotuko da diseinua eta lanak 2025eko udan egitea espero da.

Erredakzinoa

HH, LH eta DBHko ikasleek konpartiduten dabe patioa eta eskolako ordutegia amaitutakoan hainbat kultura eta kirol egiten dira herritarrentzat. Erabiltzaile honeek guztiak kontuan izanda osotu da patioaren eraldaketarako talde eragilea eta Maraka zerbitzuak diseinetako kooperatibearen gidaritzapean, ekin deusie prozesuari. Talde eragilean, guraso alkarteko kide bat, eskolako zuzendaritzako bat, irakasle bat, Haur eskolako bat, jai batzordekoa, herritarrak eta politikariak dagoz. Arkitektoak be parte har-

tzean dau batzarretan.

Kronograma

Proiektua azaldu eta galdetegia dakarren foiletotxoa banandu da etxe guztietan. Galdetegia, euskeraz, gaztelaniaz eta arabieraz dago; arabieraz QR baten bitartez. Bagilaren 10era arte bete ahal izan eben herritarrek eta hortik ateratako proposamenak hasiko dira beharrean batzarretan. "Marakak gidatzen dau prozesua. Apriletik garagarilera, tailerrak egingo dira eragileakaz eta umeakaz. Gero Marakak arkitektoari pasauko deutzaz jasotako informazioagaz egindako zirriborroak, eta garaga-

riletik abendura arte, plan orokor bat, planoak, tailerrak eta aurkezpen batzuk egingo dira. Ondoren, tramite guztiak eta proiektua egin behar dira. Eta gero arkitektoa parauko da martxan eta esleitu egingo da. Prozedura horrek denporea eroaten dau. Obrearen lizitazioa martiaren 1etik bagilaren 23ra arte egitea espero dogu eta obrea 2025eko udan" azaldu deutso BEGIturi Esther Iturrioz Lemoako alkateak.

Erabilera ugari, erabiltzaile ugari

Diseinua egiteko talde eragileak, beste batzuen artean, eskola eta Haur Hezkuntzako ordutegiak aztertu beharko ditu; patioa erabilerak eta arazoak; eskolaz kanpoko ekintzak; urteko ekintza handiak; edade desbardinetako ume eta gazteen zonifikazioa eta kiroldegia eraketa eskolaren arteko erabilera aztertu beharko ditu. "Helburua danontzako patioa egitea da, inklusiboa. Premina batzuk identifikatu dauz Udalak eta familia batzukaz parau da hartu-emonetan. Eskolan barruan eta herrian egiten da lanketea" dino alkateak. "Urtero egon dira hobekuntzak patioan, baina oin da momentua eskaerak egin eta danon artean ebatziak hartzeako".



ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIO

San Juan bezperan suak biztuko dabez herri eta auzuneetan

Erredakzinoa

Sanjuanak, herriko jaiak dira Bedian eta Ubiden, baita hainbat auzotan be. Igorreko San Juan auzoan, Tallerretan Lemoan eta Zeanuriko Altxuagan, berbarako. Gainera, beste leku askotan legez, Arratiako herrietan be suak biztuko dabez San Juan eguneko bezperan udako solstizioa ospatuteko. Musikea eta jana be ez dira faltauko suaren inguruan iluntze eta gau horretan.

Holan, Arantzazun berbarako, sua prestatzen 18:00etan hasiko dira, 20:00etan sardinak eta saiheskia bananduko da bertaratu-takoen artean eta 22:00ak aldera

biztuko dira suak, tradizioaren arabera, "apoak eta sugeak erre eta artoak eta garia" gordeteko.

Areatzan, 20:00etan egingo dabe Zubizarran sardina jana eta ostean sua isiotuko dabe, baina egun osoko jaia prestatu dabe, goizean artisauren azoka bategaz hasita.

Artean, bitan ospatuko dabe udako solstizioa Santamañen. Hilaren 20an, Kokomarroak taldekoek deituta, jentea 19:00etan batuko da jan-edana konpartidutako bakotxak eroandakoagaz eta 20:00etan, sua isiotuko dabe bere inguruan koplak kantau eta jantzan egiteko. Barrio be suaren inguruan batuko dira arteaztarrak

Santamañen San Juan bezperan, hilak 23, 20:00etan, eta Udalak antolatuta, sardina jana egongo da.

Sanpedroak be, Arantzazu eta Dimako jaiak izateaz gainera, auzune batzuetako jaiak be badira; Undurragakoak, esate baterako.

Areatza

Bagilak 23, domekea

11:00etatik 14:30era, Artisauren Azokea. 12:30ean, kalejirearen herriko Nafarroa Kanta Taldeagaz. 19:00etan, *Mute* kale antzerkia Gudarien Plazan. 20:00etan, sardinak Zubizarran. Ostean, sua.

Igorreko San Juan auzoko jaiak

Bagilak 23, domekea

12:00etan, jaien hasikerako txupina. Ostean, trikitilariak. 14:30ean, Marmitako Lehiaketako aurkezpena. 19:00etan, sardina jana. 20:30ean, Joselu Anaiak erromeria. 22:00etan, San Juan sua eta suzirriak. 23:00etan, Joselu Anaiak.

Bagilak 24, astelehena

13:00etan, mezea San Juan ermitan. Ostean, trikitilariak.

Lemoako Tallerretako jaiak

Bagilak 23, domekea

19:30ean, umeentzako ekintzak. Janaria eta edaria erosteko aukerea egongo da.

Zeanuriko Altxuagako jaiak

Bagilak 23, domekea

10:00etan, txupina. 11:30ean, jantzariak.

12:30ean, mezea eta ostean barauskarria eta zozketea txistulariakaz. 18:00etan, Bola Txapelketea.

21:00etan, sardinak, txarri giherrea eta txokolatea musikeagaz. Ilundutakoan, San Juan sua.

Zeanuriko Undurragako jaiak

Bagilak 28, barikua

21:00etan, jaien hasikerea eta txitxi-burduntzia.

Bagilak 29, zapatua

Goizean zehar kalejirearen auzoan. 11:00etan, mezea eta ondoren barauskarria. 15:00etan, auzo bazkaria. 18:00etan, Eingo-gaz jantzaldia. Ondoren Igel Jaurtiketa Txapelketea.

Bagilak 30, domekea

13:00etan, Umeen Bola Txapelketea. 17:00etan, umeentzako jokoak. 18:00etan, VI. Andrazkoen eta Gizonezkoen Bola Txapelketea. 20:00etan, jaien amaieraren txokolatea eta zozketea.

ARTEA

Ahoztar Zelaieta: "Osakidetza pobreentzako zerbitzu bihurtzen dabil"

Zemendiaren 30eko greba feministearen harira, Arteako Kafrangak talde feministeak asanblada irekiak deitu ebazan eta hortik sortu zan Bizitzak Erdigunean Artea taldea, bagilaren 6an *Osakidetza hilzorian* izeneko mahai-ingurua antolatu ebana.

Erredakzinoa

Bertan parte hartu eben Ahoztar Zelaieta ikerketa kazetariak, Markel Brouard familia medikuak, Txutxin Oñate LABeko arduradunak eta Ihintza Angoitia mediku psikiatreak. Moderatzaile lanak Itsaso Bengoetxea EAEko Eutansiareen Batzordeko presidenteak egin ebazan.

Arteako Kultur Etxeko aretoa lepo bete zan Osakidetzaaren iragarritako heriotzeak, hau da, kalidadezko osasungintza publikoa desagertzeak, kezka eta pena sortzean dauzalako jentearengan. "Plantilla eskasia dago eta zutabe bako sistema baten gagoz. Azkenaldian, sailburuek-eta, plantillearen handitzearen inguruan berba egiten dabenean, egun dagoan plantillearen "egonkortzeaz" berba egiten dabe, ez lanpostu barrien inguruan" esan eban Txutxin Oñate LABekoak. Eta plantilla eskasia dala-ta, aurtengo udan be, osasun zentro asko zarratuta egongo dira eta zerbitzuak murriztuko dira uda sasoian.

Markel Brouard familia medikuak barriz, lehen mailako arretearen galerearen inguruko hausnarketea egin eban asistentzia maila horretan erlazinoak eta longitudinalidadeak daukan garrantzia azpimarratuz. Hainbat ikerketaren emaitzak be emon ebazan jakitera familia medikuak,

lehen mailako arretara sarbidea ez izateak hilkortasun tasetan daukan ondorio zuzena erakutsiz.

Bizitza medikalizau egin dala eta medikuntza teknifikau egin dala salatu eben mahai-inguruko adituek, baita osasun mentalarri jagokonean, "arazo sozialak gaixotasun izentatzen doguz eta indarkeria eraginez, kolektibotik atera eta arazoak indibidualizauz, sistema zapaltzailea iraun arazoteko praktikan" azaldu eban Ihintza Angoitia mediku psikiatreak, eta osasungintzea, zaintza sistema osoaren barruan ulertu behar dala eta zaintzaren inguruko hausnarketa sakona egin behar dogula esan eban, definizio eufemistikoak gainditu eta mobimentu feministeak egindako proposamena mahai gainean ipiniz.

Holan, plantilla eskasagaz, lehen arreta galbidean dala eta baliabideen pribatizazioagaz, Osakidetza ez da gai kalidadezko zerbitzurik eskaintzeko eta "pobreentzako" zerbitzu bihurtzen dabil. "Horrek azken urteotako kudeaketan dauka oinarria: izan be despatxuetako talentu faltea eta interes ekonomiko propioetan oinarritutako sistemea eregi deuskuelako da" argitu eban Ahoztar Zelaieta ikerketa kazetariak. Eta izen abizenakaz identifikau daitezkean enpresa moltsorean eraketea eta honeen etekin ekonomikoak azaldu ebazan gero.



DIMA

Dimener, Dimako energia barriztagarrien komunidadea sortu da

Igazko zemendian hasi ziran biltzean Dimako 23 lagun eta oin, alkarteen erregistroan sartuta, herrian zabaldu gura dabe ahalik eta jente gehien batu daiten. Horretarako, informazinoa banandu dabe etxeetan.

Erredakzinoa

Funtsezkoenetik hasteko asmoa daukiela azaldu deusie BEGITURI alkarteko kideek, klima aldaketearen gaineko konzienziarazinoa eta energia konsumoa murrizte-tik; gero, akaso, energia ekoiztu eta horren konsumoa konpartidu ahal izango litzateke energia barriztagarrien komunidadean.

Energia barriztagarriak

Klima aldaketeak planetan eta gizadian eragiten dituan ondorioei aurre egiteak, transizino energetikoa ahalbidetzea eskatzen dau. Horretarako sortu da Dimener. "Klima aldaketea dala-ta, jentearren konzienzia eta kulturea aldatzea da asmoa, txipa aldatzea, gure eskuetan dagoana egiteko" dino Bernar Gomez Edesa alkarteko kideak. Hau da, aldaketa kulturala bultzatzeko transizino energetikoa ardatz izanda eta energiaren inguruan gure esku egon daitezkean alderdiak ikastea eta kudeatzea, argiaren faktorea ulertzetik hasita, konsumo eraginkorragoa bultzatuz, konsumoa murriztu eta autokonsumoraino. Formakuntzarako, Goiener, energia barriztagarrien sorkuntza eta konsumo kooperatibearen laguntzea izango dabe Dimakoek. "Zemendiatik hona, batzar pilo bat egin doguz eta gure asmoa da funtsezkoenetik hastera; hau da, guk fakturak zelan irakurten di-

ran edo konsumoa zelan murriztu ahal dan gaineko ikastaroa egin eta gero jenteari heldu arazo. Txip aldaketa bat zelan konsumiduten dogun eta zelan izan efizienteak. Konsumoa eta konsumo konpartidua be, -hau da, plakak daukazan zelan konpartidu ahal dituan auzokideakaz- izan dira mahai gainean" azaldu deutso BEGITURI Leire Berasaluze Sanz alkarteko kideak.

Komunidadea

Hori gauatzeko komunidadea sortu gura dabe. Dimako persona guztiak bertan parte hartzera animetan dabez Dimener-ekoek. "Mundu guztiak hartu daike parte, bere errealidade soziala, ekonomikoa, kulturala eta bere sinismen ideologikoak" edozein izanda be. Eta ebatziak hartzerakoan, danak bardinak dirala dinoe eta edozein

herritarren botoak, Udalarenak beste, esate baterako, balio dau. Gainera, inor ez geratzea atzean pobrezia energetikoagaitik be gura dabe, "baldin badago jentea ezin dauana parte hartu besteon moduan, gu hori errazteko gagoz, pobrezia energetikoari aurre egiteko. Azkenean, eredu irekia, demokratikoa, parte-hartzailea eta bardintasunezkoa izate gura dogu" dino Gomez Edesak.

Arratia

Dimener ez da Arratiako energia barriztagarrien lehenengo komunidadea energetikoa, Artean be badago komunidadea energetikoa, konsumo kooperatibea be badana. Maiatzaren 30ean, Dima eta Arteako energia komunidadeeek berbaldia egin eben Igorreko Kultur Etxean, Arratiako energia konsumo eta preminak aztertuz.



ARANTZAZU

Geocoaching ikastaroa antolatu dabe garagarriko jardunaldiei begira

Erredakzinoa

Garagarriaren 19, 20 eta 21ean Arantzazun Geocoaching jardunaldiak egingo dira, eta Geocoaching-a zer dan erakusteko asmoz, bagilaren 21ean, 19:00etatik 21:00etara, ikastaroa egongo da Kultur Gunean, 16 urtetik gorakoentzat.

Ikastaroan jokoaren oinarrizko kontzeptuak, zein altxorak bilatzeko app-a erabiltzen erakutsiko da.

Kanpoan be praktikak egingo dira *cache* bila. *Cache*-ak, erregistro liburu eta alkar trukatzeko objektuak dituen kutxak dira. Geocoaching-a, telefonoa erabiliz, kutxa honeek bilatzean datza. Topautakoaren erregistroa, liburuan bertan eta aplikazioan egiten da, topautakoen kopurua batuz.

Joko honetan adin desbardinetak jokalariek parte hartzean dabe, naturara urtetera eta interes turistikoa daukien lekuak ezetuten

animetan dituana. Bizkaian, 1.500 *cache* inguru dagoz nork topauko zain. Arantzazun, Igorren eta Dima ostenduta dagozan ia 200 *cache*, ikastaroa emongo dauan Arantzazuko Iñaki Antonek ipinitakoak dira. Ikastaroan, oinarrizko arauak ikasi ostean, Arantzazutik ibiliko dira partaideak *cache* bila.

Geocoaching jardunaldiak garagarrilean

Garagarriaren 19tik 21era, urteko Geocoaching jarduerarik handienetakoa egingo da Arantzazun. Bertara, Euskal Herriko jokalariek gainera, Valentzia, Katalunia, Galizia eta Frantziako jokalariek hartuko dabe parte.

DIMA

The Clayton eta Los Zopilotes Txirriaos taldeek animauko dabe sanpedroetako zapatu gaua

Dimako jaietako hasikerako txupina bagilaren 27an, eguenean, botako dabe eta domeka iluntzera arte, egunak eta gauak, musikaz, gastronomiaz eta lehiaketakaz beteta egongo dira.

Erredakzinoa

Umeentzako jolasak, kuadrillen arteko jokoak, erromeriak, kontzertuak, Playback Lehiaketea eta edade guztietarako beste jardue- ra asko dagoz egitarauan.

Kontzertuei jagokienean, An- doni Oilokiegik bere gitarreagaz girotuko dau egueneko gaua; barikuan, Akesolo eta Houston, A&H taldeak bere rock operaren kanta- joko ditu; zapatuan, The Clayton taldeak, rock, blues eta punk soinuak ipiniko deutzaz gauari, eta gauerditik aurrera Los Zopilotes Txirriaos taldeak, ran- txerak.

Herri afariak, jubiladuen bazka- riak, Tortilla eta Paella Txapelketek eta taloek osotuten dabe egitarau gastronomikoa.

Bagilak 27, eguena

17:30ean, kuadrillen arteko jokoak.
19:00etan, txupinazoa.
19:10ean, Dantza Barri taldearen jantza ikuskizuna.
19:30ean, bafle poteoa herriko tabernetatik.
21:00etan, herri afaria. Txartelak salgai tabernetan.
22:30ean, Andoni Oilokiegiren kontzertua.
24:00etan, Bide batez erromeria taldea.
02:00etan, DJ USB.

Bagilak 28, barikua

11:30ean, umeentzako jolasak.
12:00etan, mezea.
13:00etan, 85 urtekoei omenaldia.
14:00etan, jubiladuen bazkaria.
17:00etan, Tute Txapelketea Ara- motz tabernan.
17:30ean, LGBTBIQ+ kolekti- boaren sexu askapenaren eta harrotasunaren aldeko argazkia plazako eskilaretan.
18:00etan, pelota partiduak fron- toi txikian:
-Txumuluxueta pelota eskolako umeak.
-Amaia Aldai eta Olatz Arrizaba- laga.
-Jaietako Esku Pelota Txapelke- tako finala.



20:00etan, Akesolo eta Houston, A&Hren kontzertua.
21:30ean, Playback Lehiaketea.
23:00etan, Zutik taldeagaz erro- meria.
02:00etan, DJ Txabeneruek.

Bagilak 29, zapatua

11:30ean, umeentzako jokoak.
12:00etan, mezea.
12:30ean, Txipli Txapla otxotea tabernetatik.
14:30ean, Tortilla Txapelketea: tortillak aurkeztu.
16:00etan, Mus Txapelketea Ibai Toki tabernan.
17:00etan, kuadrillen arteko jokoak.
19:00etan, elektrotxarangea.
19:00etan, taloak.
22:30ean, The Clayton taldearen kontzertua.
23:45ean, erifetako sari banaketea.
24:00etan, euskal errepresalia- duen giza eskubideen aldeko ekitaldia plazan.
00:30ean, Los Zopilotes Txirriaos taldearen kontzertua.
02:30ean, Bidean erromeria eta DJ USB.

Bagilak 30, domekea

15:00etan, Paella Txapelketea. Paellak aurkeztu.
17:30ean, bertsoak. Bertsolariak: Nerea Ibarzabal, Asier Galarza, Onintza Enbeita eta Oihana Bartra.
19:15ean, Kuadrillen arteko jokoen sari banaketea.
19:30ean, Julen Axpe "Furgonologoa"ren saioa.

ARANTZAZU

Lau eguneko egitaraua antolatu da Arantzazuko sanpedroetarako

Erredakzinoa

Bagilaren 27tik 30era ospatuko dira aurten Arantzazuko jaiak eta Arantzarte Dantza Taldeak botako dau txupina, jantzarien 50. urteu- rrena omentzeko.

Mokautxogaz eta Musika Eskolako ikasleen kontzertuagaz girotuko dan eguen lasai baten ostean, ekintzaz betetako astegoi- ena izango dabe au- rretik arantzazutarak. Barikuan kon- zertuak izango dira nagusi Kilimak, Moonshine Wagon, Trikizio eta DJ Jonkasen zuzeneko emonaldiakaz. Zapatua paella eta tortilla eguna izango da. Ping-pong, igel eta txapel jaurtiketa txapelketak be egingo dira, elektrotxangeagaz eta erromeriagaz jantzan egin bitartean. Amaituteko, domekan umeentzako jolas eta puzgarriak batetik, eta bestetik, nugu- sientzako karta jokoak egongo dira.

Bagilak 27, eguena

14:30ean, herritarrentzako kopaua.
18:30ean, Arratiako Musika Esko- lako ikasleen emonaldiak.
19:30ean, pintxopotea Herriko Tabernan.

Bagilak 28, barikua

19:00etan, pregoia eta txupina- zoa Arantzarte Dantza Taldearen eskutik.
19:15ean, buruhandiak.
19:30ean, plaza jantzak eta Larrain jantzea.
20:00etan, Ardoa Barrura fanfaria.
20:30ean, kontzertuak plazan: Ki- limak, Moonshine Wagon, Trikizio erromeria eta DJ Jonkas.

Bagilak 29, zapatua

10:00etan, Paella eta Tortilla Le- hiaketetarako izen-emotea eta ma- haien banaketea.
11:00etan, 10 eta 17 urte arteko gazteen Ping-pong Txapelketea frontoian.
12:00etan, Orkresta Elektrotuna elektrotxarangea.
12:30ean, Igel Txapelketea.
13:00etan, mezea.
14:00etan, paella eta tortillen aur- kezpena.
17:00etan, Txapel Jaurtiketa Txapel- ketea.
18:00etan, umeentzako ginkanea.
19:00etan, playbacka eta karaokea.
21:00etan, erromeria Joxpa-gaz.



Bagilak 30, domekea

10:30etik 13:30era, jolasak eta puzgarriak frontoian.
13:30ean, Bocabeats Komedia Show Herriko Tabernan.
16:30ean, Mus Txapelketea Monte- ro tabernan eta Briska Txapelketea Herriko Tabernan.
18:00etan, Arantzarte Dantza Tal- dearen ekitaldia.
19:00etan, bingoa eta txokolatea.

UBIDE

Arbolea plazan altxauta hasiko ditue jaiak Ubiden

Erredakzinoa

Taldean joango dira Ubideko herri- tarrak basora arbolearen bila, herri- raino ekarri eta jentean artean al- txauko dabe, jaietan herriko plazan egon daiten. Sua, San Juan bez- peran biztuko dabe, 23:00etan. Elektrotxarangea, erromeria, pelota partiduak, Gontzal Mendibilen kontzertua, DJ-a, umeentzako puzgarriak eta olinpiadak ez dira faltauko sanjuanetan eta tonbolea eta txurro saltzaileak be egongo dira. Igaz lez, herriko jaiak lagun- duteko eta herria apainduteko, lepoko zapiak atera ditu Jai Batzor-

deak. Zapiok etxeetan be ipinteko eskatu dabe batzordekoek, herria jaietan dagoala adierazoteko.

Bariku arrastian eta zapatu goi- zean zehar Ubideko herritarrak izeneko Mamen Lopezen marrazki erakusketea egongo da frontoian.

Jaietako herri afaria dala-ta Herriko Tabernan eta Batzokian apuntatzeko aukereaz gain, 688 869 071 zenbakira idatzita apuntau daiteke hilaren 17ra arte. Prezioa 25 eurokoa da na- gusientzat; ikasle, langabetu eta jubiladuentzat 20 eurokoa eta 12 urtera artekoek 15 euro ordaindu behar dabez.



Bagilak 21, barikua

17:00etan, arbolearen bila.
19:00etan, arbolea altxau.
20:00etan, Burrumba elektrotxa- rangea.
21:00etan, afari-trukea.
23:00etan, Xaukena Xauk biko- tearen musika saioa.

Bagilak 22, zapatua

12:30ean, Sorgina Txirulina umeentzako ikuskizuna.
17:30ean, Ubideko olinpiadak.
21:30ean, herri afaria moztortuta.
23:30ean, Zazpizar-egaz erromeria.
02:30ean, MC Mera txosnafesta.

Bagilak 23, domekea

11:00etan, puzgarriak.
12:00etan, Otxandioko Urduri jantza taldea.
17:30ean, pelota partiduak. Ados Pilota: Iturriaga-Zabala vs Arrieta- Orbegozo; Garfe Pelota: Uribe- Arbizu vs Victor-Markaida.
19:30ean, Gontzal Mendibil.
21:00etan, parilladea.
23:00etan, sua.

Bagilak 24, astelehena

13:15ean, kopaua, trikixtea eta panderoa.
18:00etan, Ipar Zirko Cia Trotamundos konpainiaren antzerkia.
21:00etan, atzen trakea eta jaien amaiera.

EUROPAR HAUTESKUNDEAK

Eskoi muturra indartu egin da Europako Parlamentuan

Europako Parlamentuko lau eserlekutik bat eskoï muturrak hartuko dau. Bagilaren 9an egindako hauteskundeetan, Europar Batasuneko 27 herrialdeetako herritarrek, 720 eurodiputadu aukeratu ebezan. Euretako 192, Legebiltzararren %26,67, eskoï muturrekoak izango dira. 19 herrialdetan egin dau gora eskoï muturrak, Espainian barne, aurreko hauteskundeetan baino boto gehiago lortuz. Arratian be, eskoï muturrak 2019an 39 boto jasotzetik, oin 127 boto jasotzera pasau da, Vox-ek 63 boto eta SALFek 64 boto lortuta.

Erredakzinoa


Europako Parlamentuko 720 eserlekuetatik Espainiak 61 eserleku ditu eta alderdi politikoak, batzuetan koalizioetan joanda be, Europako Legebiltzarreko talde politikoren baten barruan kokatzen dira. Holan, Arratia Ubide eta Zeberion lehenengo indarra izan dan EH Bilduk Orain Errepublikak koalizioaren barruan, 2.857 boto eskuratu ditu, baina Europako Parlamentuan, The Left talde parlamentarioaren barruan dago eta The Left ezkerreko taldeak, 36 eserleku ditu. Talde berean, Podemos dago. Podemosek 122 boto jaso ditu BEGITUREN eremuan.

EAJ-PNVk, EH Bilduk baino 300 boto gitxiago eskuratu ditu oingoan, 2.553 boto hain zuzen be, eta CEUS Europa Solidarioaren aldeko koalizioagaz Renew Europe taldean egongo da. Renew Europek, 79 eserleku lortu ditu, Legebiltzarreko hirugarren talde politikoa izanda.

Hurrengo indarra Arratian, PSOE izan da, 573 botogaz; S&D Europako taldean egongo da. S&D Europako bigarren indarra izan da 135 eserlekugaz.

Europako Alderdi Popularra izan da Europako hauteskundeak irabazi dituana, 189 eserleku lortuz. Bertan dago PP eta PPK, 176 boto lortu ditu gure eskualdean.

Arratia, Ubide eta Zeberion, Vox, eskoï muturreko partiduak 63 boto izan ditu eta SALFek 64. Beraz, guztira 127 boto izan ditu gurean eskoï muturrak. Europako Konserbadore eta Erreformisten (ERC Group) taldean egongo dira Vox eta SALF. Talde parlamentario honek 73 eserleku lortu ditu Europako Legebiltzarrean.



Eskoï muturreko beste talde parlamentarioak Identidadea eta Demokraziak (ID) 58 eserleku eskuratu ditu. Aurretik talde parlamentarioetan egon ez diran eskoï muturreko partiduek beste 28 eserleku lortu ditue.

Eskoï muturraren indarra

Eskoï muturreko 40 alderdik lortu dabe Europako Parlamentuan egotea eta 192 parlamentari izango dira eskoï muturrekoak. Meloni da Europako Konserbadore eta Erreformisten presidentea eta Marine Le Pen Identidadea eta Demokraziako burua.

Espainiak eskoï muturreko 9 eurodiputadu izango ditu, Vox-eko 6 eta SALF-eko (Se Acabo La Fiesta) 3.

Europako Legebiltzarrean eskoï muturrak daukan indarrak eragina izango dau bai estaduko bai Eusko Jaurlaritzearen mi-

grazino politiketan, andren eta LGTBIQ+ kolektiboaren eskubideetan, aldaketa klimatikoaren kontrako politketan, zerbitzu publikoetan eta gizartean egoera zaurgarrian dagozan personenen babes sozialean.

EAE eta Arratiako emaitzak

EH Bilduk, Arratia, Ubide eta Zeberio 2.857 boto eskuratu ebazan bagilaren 9ko Europako Legebiltzarrerako hauteskundeetan. Atzetik, 300 boto gitxiagaz, EAJ gelditu zan. Abstenzinoa,

%40ra ailegau zan Arratia, Ubide eta Zeberion.

Hego Euskal Herrian PSOE izan zan lehen indarra, 300.082 boto lortuta, eta Araban, Bizkaian zein Nafarroan irabazita. Bigarrena, EH Bildu izan zan. Orain Errepublikak koalizioan aurkeztu zan eta 276.692 boto lortu ebazan. Atzetik, EAJ egon zan, Europa Solidarioaren aldeko Koalizioagaz (CEUS) 202.778 boto eskurata. Abstenzino tasa handia izan zan Hego Euskal Herrian, %50era helduta.

Arratia, Ubide eta Zeberion be, bide antzekotik joan ziran emaitzak baina PSOE hirugarren postuan geratu da, Orain Errepublikak eta CEUSen oso atzetik. Gainontzeko alderdi espainiarrak be oso atzetik egon dira, 200 botor heldu barik. Abstenzinoa Hego Euskal Herrian baino txikiagoa izan zan, %40,03koa.

Aurreko hauteskundeakaz alderatu ezker, BEGITUREN eremuan, 2019ko hauteskundeetan baino boto gehiago lortu ditue PSOE, PPK eta Vox-ek; eta boto gitxiago EH Bilduk, EAJ-PNVk, Podemosek eta Sumarrek.

Ekainak 28



LGTBIQ+ fobiarik bako gizarte bat gura dogu

LGTBIQ+ Askapenerako Nazinoarteko Eguna



Ubideko Udala

	EH Bildu 2024 2019	EAJ-PNV 2024 2019	PSOE 2024 2019	PODEMOS 2024 2019	PP 2024 2019	VOX 2024 2019	SUMAR 2024 2019
Arantzazu	115 (%58,15) 123 (%46,24)	43 (%21,82) 119 (%44,74)	20 (%10,15) 5 (%1,88)	7 (%3,55) 11 (%4,14)	4 (%2,03) 0	2 (%1,01) 0	2 (%1,01) 11 (%4,14)
Areatza	250 (%46,38) 305 (%42,51)	195 (%36,17) 312 (%41,55)	43 (%7,97) 24 (%3,27)	8 (%1,48) 29 (%3,95)	21 (%3,89) 24 (%3,27)	3 (%0,55) 0	8 (%1,48) 29 (%3,95)
Artea	169 (%43,11) 196 (%40,16)	179 (%45,66) 236 (%48,36)	16 (%4,08) 8 (%1,64)	15 (%3,82) 31 (%6,35)	9 (%2,29) 10 (%2,05)	3 (%0,76) 0	0 31 (%6,35)
Bedia	120 (%25,53) 162 (%24,85)	230 (%48,93) 375 (%57,52)	56 (%11,91) 40 (%6,13)	9 (%1,91) 29 (%4,45)	21 (%4,46) 12 (%1,84)	12 (%2,55) 6 (%1,84)	8 (%1,70) 29 (%4,45)
Dima	435 (%60) 480 (%50,85)	214 (%29,51) 369 (%39,09)	19 (%2,62) 6 (%0,64)	10 (%1,37) 43 (%4,56)	9 (%1,24) 2 (%0,21)	6 (%0,82) 3 (%0,32)	7 (%0,96) 43 (%4,56)
Igorre	681 (%40,22) 889 (%38,52)	693 (%40,93) 1.123 (%48,53)	175 (%10,33) 92 (%3,98)	23 (%1,35) 99 (%4,28)	42 (%2,48) 21 (%0,91)	14 (%0,82) 10 (%0,43)	23 (%1,35) 99 (%4,28)
Lemoa	491 (%35,60) 695 (%36,66)	547 (%39,66) 826 (%43,57)	179 (%12,98) 145 (%7,65)	21 (%1,52) 126 (%6,65)	58 (%4,20) 28 (%1,48)	20 (%1,45) 18 (%0,95)	21 (%1,52) 126 (%6,65)
Ubide	55 (%69,62) 68 (%64,76)	14 (%17,72) 26 (%24,76)	6 (%7,59) 4 (%3,81)	3 (%3,79) 3 (%2,86)	0 0	0 0	0 3 (%2,86)
Zeanuri	292 (%47,47) 350 (%43,64)	238 (%38,69) 389 (%48,50)	31 (%5,04) 7 (%0,87)	13 (%2,11) 31 (%3,87)	8 (%1,30) 6 (%0,75)	0 0	6 (%0,97) 31 (%3,87)
Zeberio	249 (%48,16) 273 (%38,94)	200 (%38,68) 364 (%51,93)	28 (%5,41) 13 (%1,85)	13 (%2,51) 35 (%4,99)	4 (%0,77) 3 (%0,43)	3 (%0,58) 2 (%0,29)	4 (%0,77) 35 (%4,99)
GUZTIRA	2.857 3.581	2.553 4.099	573 344	122 437	176 104	63 39	86 437

*2019ko datuetan, orduan Podemos-ek lortutako botoak ipini jakiez Sumar eta Podemos alderdiei.

Ubide



Jai batzordeak eta
Ubideko Udalak
jai zoriontsuak
opa deutsuez

Gora San Juanak!



Ekainak 28

Aske maitatzeak gizarte osoa egiten dau libreago
LGTBIQ+ Askapenerako Nazinoarteko Eguna





LGTBI+ HARROTASUN EGUNA

Bagilak 28

hAro

Sentitu

auKeratu

errEspetatu

Besarkatu

maI tatu

goZatu

Izan



HALTEROFILIA

Espainiako Halterofilia Txapelketea irabazi eta errekorra ezarri dau Bruno Soto lemoaztarrek

Erredakzinoa

Bagilaren 8-9ko astegoienean jokatu zan Ourense Espainiako Federazioen arteko Halterofilia Txapelketea eta lemoaztarra 89 kiloko kategoriako irabazlea izan zan; estadu mailako bere bederatzigarren titulua lortuz. Basauriko Urbi Halterofilia klubean dago lemoaztarra. Sotok, 137 kilo altxau ebazan urtenaldian eta 180 kilo denpora bikotxean, osoko olinpikoa 317 kilo izanik. Holan, denpora bikotzeko proban lortutako markeagaz lortu dau errekor barria Junior mailan.



Bruno Soto baltzez argazkiaren erdian.

TXIRRINDULARITZEA

Luis Zubero izena ipini deusie lemoaztarrek bizikletan ibilteko parkeari

Erredakzinoa

aurreikusten da.

Udala, Lemoako futbol zelaiaren alboko lursailean, bizikletentzako Skill Park edo oreka-parkea deitzen dana hasi da eregiten. Parke honeek, bizikleteagaz teknikea era seguruan eta dibertigarrian ikasteko diseinutako espazioak dira. Maiatzaren 17tik 24ra, parkeari izena ipinteko parte-hartze prozesua ipini eban martxan Udalak eta herritarrek Luis Zubero izena aukeratu eben.

Luis Zubero parkeak, hiru ibilbide izango ditu, urtekerea eta helmuga bera dituenak. Lanak garagarrierako amaituta egotea

Luis Zubero
Luis Zubero 1948ko martiaren 18an Zeberion jaiotako txirrindulari bizkaitarra da, zazpi urtez (1968-1975) txirrindulari profesional izan zana. Txirrindulari amateur moduan, Bizkaiko eta Espainiako txapelduna izan zan 1967an, eta, ondoren, profesionala, Mexikoko 1968ko Olinpiadetan, 4 Frantziako Tourretan (1970, 1971, 1973 eta 1974) eta 3 Italiako Giroan (1971, 1973 eta 1974) parte hartu eban, baita Euskal Herriko Itzuliaren 1969tik 1976ra bitarteko edizinoetan be.



TXIRRINDULARITZEA

Bigarren postuan amaitu dau Oskar Garrok Espainiako Kopea

Erredakzinoa

Amaitu da Espainiako Errepideko Kopa Paralinpikoa eta Oskar Garro txirrindulari igorretarrak bigarren egin dau, Paulino Fernandez atzetik. Atzen lasterketa biak A Larachan (Galizia) izan dira, bagilaren 8an eta 9an. Garrok bat irabazi eta bestean bigarren egin eban baina Kopa guztian zehar aurretik egotea ez da nahikoa izan sailkapenean lehenengoa amaituteko. Izan be, aurretik jardunaldi bat galdu eban, puntuak galduz. Duetloi batera aurkezteko izan zan eta damututa agertu da; gainera, triatloi baterako prestatutena dabil, Valentzian izango dana urri lehenengoaren 14an.

A Larachara bueltan, zirkuituari ordu bat gehi itzuli bat egitea zan lehen proba. Maiatza amaieran lehiatutako lasterketara gaixorik aurkeztu ostean, "arantzea kentzeako" balio izan eutsan lasterketa honek, "oso-oso ondo" ikusi zalako errepidean. Luis Ja-

vier Arcega izan zan bere aurkari nagusia, eta Garro harro agertu zan bere kategoriako kirolari garrantzitsuenaren erritmoa jarraitu ahal izan ebalako. Lasterketa osoan egon ziran lehia estuan baina atzenean, Arcega aurreratu zan gixigaitik.

Hurrengo egunean, 16 kilometroko erlojupekoa lehiatu

eban. "Oso ondo urten nintzan, indarrak gordetan, atzen itzulian topera ibilteko", adierazo eutsan Garrok begituri. Orduan be, Arcegaz lehia estuan ibili zan eta atzenean, Garrok lortu eban Espainiako selekzioagaz Munduko Txapelketan ibiltan dan txirrindularia garaitzea, 3 segundoko alde estuagaz.



Oskar Garro argazkiaren erdian.

PELOTEA

Bizkaiko Lau eta Erdiko Txapelketan Anton Erkiaga eta Malen Lamadrid txapeldun eta Iker Rekalde txapeldunorde izan dira

Erredakzinoa

Zeanuriko Joko Alaiko Anton Erkiagak Nagusi 1. mailako txapela jantzi eban; Dimako Txumuluxuetako Malen Lamadrid, andrazkoena eta Iker Rekalde txapeldunorde izan zan Gazte mailan. Bizkaiko Lau eta Erdiko Txapelketako finalak bagilaren 7an jokatu ziran Derion.

Finalean, Erkiaga, Portugaleteko Izarra klubeko Unatx Riopelotariari nagusitu jakon 22-10. Lamadrid Sestaoko Lagun Artea klubeko Alba Mongeren kontra 22-5 irabazi eban. Iker Rekaldek Markinako Mikel Egurrolaren kontra jokatu eban finala, 22-6 galduz.

Ainhoa Ruiz de Infantek Udaberriko Torneo irabazi dau
Ainhoa Ruiz de Infante Txumuluxuetako pelotariak, Ados Pilotak antolatutako Udaberri Torneo irabazi dau Kukuprakak taldeagaz. Kukuprakak taldea, Ruiz de Infante, Etxekolonea eta Mujika pelotariak osatu eben eta Mitxoleta, Iturriaga, Ruiz de Larramendi eta



Anton Erkiaga txapelagaz.

Mendiburuk osotutako taldearen kontra irabazita lortu eben txapela. Lau eta erdian Ainhoa Ruiz de Infantek 18-12 irabazi eutsan Ruiz de Larramendiri. Binakakoan be Kukuprakak taldearen bikoa nagusitu zan 22-20.

IX. Dimako jaietako pelota txapelketea
Bederatzigarrenez antolatu dabe Dimako gazteek herriko jaietako pelota txapelketea. Aurten be, herriko jentearantzat da, baina bikoteko bat Dimakoa ez dan bat

be egoteko aukerea emon da. Txapelketea apirilaren 8an hasi zan eta bagilaren 28an amaituko da.

Plazako frontoi txikian jokatu ten dira partidua eta bikoteek ebazten dabe partidua noz jakatu, gero emaitza antolatzaileei bialduteko. "Lagunarteko giroan aurrera eroaten dan txapelketea da, leluka-leluka frontoi txikiari bizia emon eta sano ambiente sanoa lortuz" dinoe antolakuntzatik. Aurten 11 bikote dabiz parte hartuten, talde bitan bananduta. Finala bagilaren 28an jokatuko da.

HERRI-KIROLAK

Euskadiko Lasto Botatze Txapelketan,
lau partaidetik bi arratiarrak izango dira

Erredakzinoa

Bagilaren 23an jokatu da Aulestin (Bizkaia) Euskadiko Lasto Botatze Txapelketea eta bertan hartuko dabe parte, Bizkaikoa jokatu eben kirolari berberak. Hau da, barriro be Jose Martin Bustinza "Tubi" txapelduna, Jon Loiola, Mikel Agirre eta Beñat Obieta neurtuko dira. Danak bizkaitarrak.

Lasto botaten gero eta jente gitxiago dabilela dino Tubik eta kezka honetatik abiatuta sortu zan Diman Txabila alkarteak. "Helburua egiten doguzan kirolak sustatutea da" dino Jon Loiola herri-kirolari eta Txabila sortzaileetakoak. Sarritan ez dala egoten non entrenau eta Txabilak aukera hori emon gura deutso interesauta dagoan jenteari. Entrenamentuak, astelehen eta eguaztenetan 18:00etan izaten dira Dimako frontoi handian eta 16 urtetik gorako gazteak animau gura dabez Txabilakoek herri-kirolak ikasi eta praktiketara.

Iparraldeko herri-kirolek gero eta prestigio gitxiago daukiela dino Tubik "Oin 30 urte plaza guztiak beteta egoten ziran. Etorten zan herri-kiroletako jenteak, kanpotik eta jaietan beteta egoten zan. Gaur egun ez da holan. Ikusteko be ez dator jenteak. Lehen herrien arteko herri-kirol txapelketak egiten ziran eta jenteak, gitxi edo asko, preparentan zan horreetarako. Hori galdu zan".

Loiolaren ustez, kirolaren gogortasuna be izan daiteke kirolari gitxi egoteko errazoietako bat. "Hau kirola egiten ikasteko eta zezzer lortuteko oso sufridua da.

Ez da egun batetik bestera ikusten emaitza. Indarra landu behar dozu eta etorri dan jenteak ikusi dau oso gogorra dala". Baina crossfit-aren arrakasteak itxaropena biztu deutse; izan be, crossfit-etik herri-kirol honeetara pasau dirala batzuk dinoe kirolariak.

Lasto Altxatzea eta trontzea

Euskadiko Lasto Altxatze Txapelketea bagilaren 15ean jokatu da Durangon. Arratiako ordezkaritza be izango da han, Jon Loiola Dimakoak eta Ruth Linaza Lemoakoak hartuko dabelako parte bertan. Tu-



Jon Loiola eta Tubi.

bik ez ordea. "Igazitik nago belau-niko minez eta lasto altxatzeak, maila baten egoteko, gehiago eskatzen dau entrenamentuetan, eta ebatzi dot parte ez hartzea" azaldu deutso BEGURI.

Gizonezkoetan, Jon Loiolaz gainera, Beñat Amadek, Eder Lopez de Abetxukok, Eder Saez de Ocari-zek, Oier Gonzalez Galdeanok, Jon Lapazaraneke eta Mikel Gonzalez Galdeanok emon dabe izena. Andrazkoetan, Ruth Linaza lemoaztar-rak, Sara Asenjok, Garbiñe Lopez de Uraldek eta Lorea Fernandez de Barrenak.

Denporaldi bat lehiaketetatik kanpo egon ostean, barriro txapelketetan murgilduta dago Linaza herri-kirolaria. Euskadiko Lasto Altxatze Txapelketeaz gainera, bagilaren 23an, Kimetz Lapazarane-gaz batera, Euskadiko Trontza Misto Txapelketan hartuko dau parte eta ga-ragarrilean, Euskadiko andrazkoen Trontza Txapelketan, Garbiñe Lopez de Uralde bikotekideagaz.

MENDIA

Europako II. Off-Road
Txapelketan hartu eban
parte Onditz Iturbek

Erredakzinoa

Frantziar Alpeetan Igoera Bertikala eta Mountain Classic lasterke-tak jokatu ebazan eta oingoan ez da lehenengo postuetan egon, 18. eta 22. postuetan sartu zan helmugara eta.

Maiatzaren 31 eta bagilaren 2an jokatu ebazan Iturbek lasterketak Alpeetako Annecy herriaren inguruan. Europako II. Off-Road Txapelketan. Espainiako estaduko selekzinoagaz hartu eban parte.

Igorreztarrak jokaturako lehe-nengo proban, Kilometro Bertikalean, lupetza eta hotza izan ziran protagonistak. Ibilbideak 7,4 km eta 950 metroko igoera izan eban. Iturbek 56:34ko denporea egin eban, Nina Engelhard irabazleak baino 6:26 gehiago eta ez zan pozik geratu. "Frustragarria izan da, lupetz asko eta jente asko egoalako, batez be hasikeran.

Korrika egiteko zati errazenean hobeto kudeatu dodala uste dot eta indartsuago amaitu dot", adierazo eutsen medioei helmugan.

Hurrengo lasterketea, 16 ki-lometro eta 960 metroko des-nibelduna be ez zan gozagarria izan igorreztarrantzat. Hau be Nina Engelhardek irabazi eban 01:22:44ko denporeagaz. Iturbek 01:30:44 behar izan eban ibilbidea amaituteko. Gorantza ondo joan zan arren, bajatukeran, postuak galdu ebazan.



Arantzazu

Arantzazuko
Udalak eta
Jai Batzordeak

Jai askeak eta
zoriontsuak opa deutsuez

BEDIA

Bediako Udalak
eta jai batzordeak

Gora San Juan jaiak!

JAI ZORIONTSUAK
OPA DEUTSUEZ

DIMAKO Udalak
JAI ZORIONTSU EUSKALDUNAK
opa dautsuez

Dimako Udala

HI TA NI BI
Dima

MUSIKEA

Kepa Junkerari omenaldia egingo deutsie Arratiako eta Elorrioko musika eskolek

Anbototik Gorbeiararen izenpean, Arratiako eta Elorrioko musika eskolek ikuskizuna prestatu dabe hilaren 22an, Igorreko Lasarte Aretoan, saio bitan taularatuteko. Kepa Junkera, omendua, bertan egongo da. Bertaratzeko konbiteak musika eskolakoen artean bananduko dira eta ostean lekua balego, eskuratu ahal izango ditu publiko orokorrak.

Erredakzioa

Ikuskizunak musikea izango dau ardatz, baina bestelako disziplina batzuk be hartuko ditu; jantzea, bertsolaritza, kirola eta magia, hain zuzen be. Horretarako kolaboratzaileak bilatu dira Arratian: Aitzol Atutxa azkolariak, Nerea Zuloaga sortzaileak, Areatzak Beti Gazte Dantza Taldeak eta Dimako Bertso Eskolek egingo ditue kolaboraziook. Honek eta proiektatuko diran irudiek jantziko dabez Gorbeia Ensemble Arratiako ikasleek eta Besaide Band Elorriokoek prestatu dituen abestiak. Ikuskizunaren aurkezlea Eleder Iglesias izango

da eta emonaldia bideratzeaz gainera, magia be ekarriko dau taula gainera.

Saio bi egingo dira egun berean eta konbiteak parte-hartzaile eta musika eskolako ikasleen artean bananduko dira. Lekua balego, konbiteak eskuratzeko informazioa Arratiako Musika Eskolako sare eta webgunean emongo da jakitera.

Anbototik Gorbeiararen eta bueltea

Anbototik Gorbeiararen Arratiako eta Elorrioko musika eskolek alkar-lanean antolatu daben bidaia musikala da. Lehen edizinoan Igorreko Lasarte aretoan izango


da baina joan-etorriko proiektua danez, hurrengo edizinoan Elorriko antolatuko da, Gorbeiatik Anbotora izenpean.

Emonaldi honek hainbat helburu ditue. Parte hartuko daben musika eskoletako ehundik gora ikasleei erronka barriak proposatzea da helburuetako bat "ikuskizun profesional bat zelant egin dan bizi eta berau prestatuteko egin behar dan aurreko lan guztia ikasiko dabe; lagun barriak be egingo ditue bidean, ziur" dinoe antolakuntzatik. Beste alde batetik, tokian tokiko artista eta alkarleak hartu-emonen estutu gura dau ikuskizunak, KM0-ko funtzioak sortuz,

ekarpen aberasgarriakaz.

Lehen edizino honetan Kepa Junkera omenduko da. Izan be, Junkerak badauka Arratiagaz loturirik. Zeanuriko Trikitixa Txapelketa irabazteaz gainera, Arra-

tian trikitia irakasten be urteak emon ebazan eta bere ekarpen itzela eskertu gura deutsie musika eskola biek. Horrexegaitik bere errepertorioak leku berezia izango dau emonaldian.



EUSKEREAA

Ikasturte barrirako aurrematrikulazino kanpaina abiatu dau AEK-k

Erredakzioa

2024-2025 ikasturtean euskerea ikasten segidu edo euskerea ikasten hasi gura daben ikasleek aurrez aurreko ikastaroetan zein Foruko barnetegiko hilebeteko neguko ikastaroetan, aurrematrikulea egin leikie.

Bagilaren 28a baino lehen izena emoten daben ikasleek onura honek izango ditue: 2023-2024ko prezioari eutsiko jako, ordainketa malguagoa izango dabe, epe bat gehiagogaz eta

lehenetasuna izango dabe taldeak eratuteko orduan.

Igorreko Kubulu Euskaltegian edo euskaltegiko 94 631 56 57 telefonoan, edo beste edozein euskaltegian; 673 200 100 eta 94 646 40 00 telefonoetan, eta www.aek.eus webgunean egin daiteke aurrematrikulazino. Arratia, Ubide eta Zeberioko udalek be laguntzak emoten dabez euskerea ikasten dabizantzat.

2024-2025 ikasturterako ezin da aurrematrikularik egin online ikastaroetan.



IRAKURLEEN TXOKOA

Mundu zitalaren kontra Lizar Begoñaren eleberria aztergai egongo da Arteako Irakurleen Txokoa



Erredakzioa

Bagilaren 21ean, 19:00etan, batuko dira Arteako Irakurleen Txokokoak Lizar Begoñaren *Mundu zitalaren kontra* (2024, Elkar) nobelea egileagaz komentetako. Izan be, Lizar Begoña begirada eta estilo propioak erakusten ditu Igartza sariari

esker idatzitako bere lehenengo eleberri honetan.

Lizar Begoña Madariagak (Sopela, 1996) 2020an Donostia Kultura III. Poesia Lehiaketean irabazi eban *Aro beilegia* izeneko poesia liburuagaz. Beste poesia liburu bat be kaleratu eban 2022an, *Gepardo japoniarrak* izeneko. Urte berean, Igartza saria

jaso eban eta beka horregaz, *Mundu zitalaren kontra* lehenengo eleberria idatzi dau.

Sinopsia

Kiosko bat Benidormen, hondartzako pasealekuaren aurrean, garai batean egunkariz eta bezeroz beteta, gaur egun ahazturearen eta dekadentziaren ikur bihurtua. Eta bertan andra bi lanean, goiz eta arrastiko txandetan: Pilar, XX. mende erditsuan kioskoa ipini eban arrantzalearen alabea, ahizta zahar elbarriagaz bizi dana; eta neska gazte bizkaitar izenik bako bat, udan lantxo bat izateko hara joana, bere barruko lainoengandik igesi akaso. Bakardade bi paraleloren kontaketearen bidez, egungo gizartearen erretratu zorrotz bat egin dau egileak: identitate lausoak, harreman zehaztu bakoak, helburu eta esperantza argi barik noraezean ibiltea...

JANTZEA

Jantzari belaunaldi errelebo ezari aurre egiteko Euskal Dantzarien Biltzarreko II. Gazteen Dantza Topaketa egingo da Areatzan

Erredakzinoa

Euskal Dantzarien Biltzarrak deituta, bagilaren 21etik 23ra, II. Gazteen Dantza Topaketa egingo da Areatzan.

Bertan, Euskal Herriko jantzari gazteak batuko dira euskal jantzakaz gozatzeaz gainera, euren arteko loturak sortzeako. Izan be, antolatzaileen ustez, taldeen belau-naldi erreleborik eza konponduteko funtsezkoa da taldeko kide izatearen eta nortasun sentimentuak hant-ditzea, eta topaketea hori lortzeako bide bat da. Hori dala-ta, euskal jantzak, dinamika eta partaideen arteko loturea sendotzeko Gorbeia-ra igoera be dagoz egitarauan.

Bizkaiko 16 taldetako jantzariak; Arabako bikoak; Gipuzkoako batekoak eta Nafarroako lau taldetakoak, guztira 22 taldetako jentea batuko da Areatzan, 100 lagunetik gora.

Bagilak 21, barikua

16:00etan, jantzarien harrerea.
19:00etan, hasierako ekintza plazan.
20:00etan, kopaua.
20:30etan, Plaza Dantza: Tirikitrauki plazan.

Bagilak 22, zapatua

11:00etan, ginkanea.

15:30ean, dinamikea.

18:00etan, kalejierea herrian zehar.
19:00etan, jantzen desafioa plazan.
23:30ean, erromeria Berriztu

taldeagaz plazan.

Bagilak 23, domekea

10:00etan, Gorbeia urtekerea.

OSTIRALA

16.00 Dantzarien harrera

19.00 Hasierako ekintza*

20.00 Luntx

20.30 Plaza Dantza: TIRIKITRAUKI*

LARUNBATA

11.00 Ginkana

15.30 Dinamika

18.00 Kalejira herrian zehar

19.00 Dantzen desafioa*

23.30 Erromeria: BERRIZTU* taldearekin

*Plaza nagusian

IGANDEA

GORBEIARA IGOERA

GAZTEEN DANTZA TOPAKETA

AREATZA, BIZKAIA

KONTZERTUA

Duo Nakté-k kontzertua emongo dau The Quiet Corner tabernan



Erredakzinoa

Bagilaren 28an, iluntzeko zortziretan Duo Nakté izeneko musika taldeak emonaldia eskainiko dau Areatzako The Quiet Corner tabernan.

Duo Nakté taldea Zaragozako konserbatorioan sortu zan 2021ean eta Sestaoko Julen Murga soinu-joleak eta Valentziako Victor Orts saxojoleak osotzen dabe. Talde honen berezitasun eta helburua kamarako musikearen tradiziozko lengoaia barriztau eta gaurkotzea da. Musika klasiko eta musika garaikidea

nahasten dabe euren erreper-torioan eta sari ugari jaso ditue.

Julen Murga eskarmentu luzeko musikaria da, folk talde askotan jo izan dau, besteak beste Oskorri taldean. Sestaotarra ez da Arrat-tian ezezaguna, musika zeltiarra egiten dauan Zeanuriko Sweet Wind taldeko kidea be badalako.

Taldearen izenari jagokonean, serbiar hizkuntzako "akordeoi" izena otu ei jakien, hortik "nakté", baina n hori alfabeto zirilikoa p da, pakté edo ahoskatu beharko litzateke. Baina antza danez, Nakté gustau jakien eta haregaz geratu ziran.

DUNBA

"LAN (Look AftertheNet) Zaindusare" proiektua: geure bidaia ikaskuntza zerbitzuan zehar

Arratia Institutua BHI

Aurton aparteko osterea egin dogu ikaskuntza-zerbitzuan zehar: ongizatea landu eta geure komu-nidadearen eta munduaren arteko aldea bardindu gura izan dogu. Batetik, kursoan zehar institutura heltzean diran ikasleei harrerea egiteko ingurune egokia sortu gura izan deutsegu. Bestetik, estresak jota eta erronka personalakaz bu-rrukan dabilzan kideei arnasmunea eskaini gura izan deutsegu. Horre-tarako, DBH 4. mailako Ikaskun-tza Zerbitzua Komunitateari (IZK) jakintzagaiaren barruan Enbaxado-reen taldea eratu dogu.

Urtean zehar, geure Enbaxado-reek ikasle immigrante barrien-tzako "ongi etorri-kita" diseinatu dabe, gure eskolan batetik bestera laguntzeko ezinbesteko tresnez



Igorreko alkatearen harrerea Albert Einstein Gymnasiumeko ikasleei.

betea. Besteak beste, argazki-hiztegiak, gogo onen arbolea eta ongietorri kartel handia. Gainera, harrera sarea sortu dabe ikasgelaz ikasgela, etorkinei egunerokoan lagunduteko.

Era berean, ikasgela bat txukun-du dabe –"arnasmunea"– eta lasai egoteko leku atsegin bihurtu dabe hainbat baliabidez horniduta: eu-rek egindako altzariak, mezu eta musika nasaigarriak eta estualdie-

tarako laguntza-bideoak.

LAN proiektua Erasmus+ eta eTwinning programakaz buztartu dogu. Izan be, aspaldiko laguna dogun Albert Einsteinen Gymna-siumegaz alkartrukea egin dogu. Abenduan, Ulmera (Alemania) joan ginan, euren eskola bisitau genduan, eta harrera beroa egin euskuen kideen familietan. Ber-tako kulturaren murgildu ginan, eskolako jardueretan parte hartu, migranteei egiten deutseen har-rereri buruz ikertu genduan eta uria eta inguruak esplorau gen-duzan. Alemanek bagilean itzuli deuskue bisitea (familia anfitrioi hobeagorik ez ei dago munduan), eta aste ahaztuezina emon dogu alkarregaz, hainbat jardueretan parte hartuz eta gure esperientziak partekatuz.

Ibilbide horretan zehar, enpatia,

ulermena eta komunikazio ahal-menari buruzko irakatsi baliotsuak ikasi doguz. Kulturartekotasunaren aberastasuna eta hesiak apur-tzearen garrantzia baloretan ikasi dogu. Proiektu honetan bizi izan doguzan emozinoak itzelak izan dira. Asko bete gaitu honek, gure komunitadearen alde egiten ga-bilzala jakinda.

Gure joan-etorriaz hausnartzen dogun bitartean, begitantzen jaku ikaskuntza zerbitzua ez dala ze-reginak burutzea bakarrik, loturak sortzea, enpatia sustatzea eta alkar ulertzea be bada. Eskertzen dogu proiektu honetan parte izateko aukerea eta Igorreko Udalaren laguntzea. Honezkero datorren ur-teko proiektuari begira parau gara.



AGENDEA

BAGILAK 17
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00retatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Abuztuaren 31ra arte, Gorbeiako Nire txoko kuttuna Argazki Lehiaketea. Argazkiak Instagramera igon #MiRinconFavorito, #GorbeiaEuskadi eta #CorazonVerdeDeEuskadi hastag-akaz.

BEDIA

Ikasgelaren zerbitzua Bete-beteka ikasgelan. Astelehenetik barikura 09:00etatik 16:00etara eta 19:30etik 21:30era; zapatu eta domeketan, 09:00etatik 21:00etara. Izena emoteko eta erreserbea egiteko 16:30etik 19:30era liburutegian. Txartela personalizaua da eta liburutegian jaso behar da.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

Hilaren 23an izango dan Sorgintxoak Eskolako tailerrerako izen-emotea tallersorgintxoak@gmail.com edo 635 139 863 telefonoan.

IGORRE

09:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 20:45era, *Hipocentros: sismos plasticos* erakusketea Kultur Etxeko Erakusketa Gelan. Hilaren 17ra arte.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik 09:30etik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era.

08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

16:00etatik aurrera, pianoa kalean Kultur Etxeko plazan.

LEMOA

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik Kultur Etxean.

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

Kiroldegiko udako ordutegia: astelehenetik barikura 09:00etatik 21:00etara; zapatu, domeka eta jai egunetan, 09:00etatik 20:00etara. Gimnasioa: astelehenetik barikura 09:00etatik 21:00etara; zapatu, domeka eta jai egunetan 09:00etatik 13:00etara.

Hilaren 24ra arte, Lemoa Txirrindulari Elkartearen urtekerarako izen-emotea lemoate@hotmail.es helbidean. Prezioa, 50 euro bazkideentzako, 60 euro gainontzekoentzako.

Nire erosketak kanpainea Lemoan. Herriko dendetan gitxienez 5 euroko erosketa bat egiteagaitik, boltsa bat opari, Lemoa Ureztatzen alkarteak ipinitako 400 boltsak amaitu arte.

ZEANURI

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Austarri Mendi Klubak antolatutako hilaren 22-23ko Urbasara astegoienpasan izena emoteko epea zabalik, austarrimenditaldea@gmail.com helbidean edo 665 735 054 eta 656 415 597 telefonoetan.

16:30etik 18:30era, hilaren 19ra arte, *Zaintzaileentzako oroimena hobetzeko estrategiak* tailerra eskola zaharrean.

BAGILAK 18
ARANTZAZU

18:30ean, garagarrilaren 8tik 13ra izango diran udaleku itxien gaineko bilreea; 19:00etan, udaleku irekien gainekoa, Kultur Gunean.

ARTEA

Jaietako sexu erasoen aurrean protokoloaren lanketea.

LEMOA

17:30ean, Lemoako Ikastetxeko patioa eraldatzeko prozesu parte-hartzaileko saio irekia ikastetxeko patioan.

ZEBERIO

18:00etan, Udalekuen gaineko bilerak: 17:00etan, txikiak; 17:30ean, ertainak; 18:00etan nagusiak. Hogarrean.

BAGILAK 19
LEMOA

11:00etan, Parke bio-osasungarria masterclass, makinak erabilten ikasteko lbaizabal parkean. Izena 674 945 426 telefonoan emon.

BAGILAK 20
ARTEA

19:00etatik aurrera, Kokomarroak antolatuta merienda autogestionaua; 20:00etan, sua Santamañen.

BEDIA

18:00etan, batzarra: Uda Gaztea.



Kale antzerkia Areatzako plazan San Juan bezperan

Bagilaren 23an, 19:00etan, Orain-Bi konpainiaren *Mute* kale antzerkia egongo da ikusgai Gudarien Plazan. Umorea, poesia eta sorpresearen bitartez, aldatzeko preminaz egiten dau berba antzezlanak. Rodrigo Lacasak eta Sara Alvarezek osotuten dabe Orain-Bi konpainia eta *Mute* zirku ikuskizunak, 2022ko Leioako Umore Azokan Euskadiko ikuskizun onenaren saria jaso eban.

Sinopsia

Mutatu: persona, animalia edo gauza baten itxurea, izakerea, egoerea eta abar aldatutea.

"...eta egun baten, iragana gure bizitzetara itzuli zan, eta sentiduten dogun guztiagaz topo eginarazo euskun. Gure antzokian barriro alkar ikusi genduan, urteen joana erakusten eban hautsak guztia estaltzen eban, eta bizitza barri horretara eraldatuta zirkuko gure ikuskizunak berbizten genduzan bitartean, aldi berean gu be mutatzen ginala sentidutearen magia sortu zan". Mutazinoa etenbako zeozer da. Ez daitezala zomorroak bakarrik mutatu. Mutatu daiguzan egiturak, baita gu, personok be, aurrera egiten jarraitzeko, urrunago, gorago, helduteko; oindino eta gatzagoa dan horretara!

Liburutegian.

IGORRE

Arrastian, hondakin zoosanitarioen bilketea MIBA kooperatiban.

BAGILAK 21
ARANTZAZU

18:00etatik 20:00etara, Geocoaching ikastaroa Kultur Gunean.

AREATZA

Euskal Herriko II. Gazteen Dantza Topaketak. 16:00etan, jantzarien harrerea; 19:00etan, hasikerako ekintza plazan; 20:00etan, kopaua; 20:30ean, Plaza Dantza: Tirikitrauki plazan.

ARTEA

19:00etan, Irakurleen Txokoa. Lizar Begoñaren *Mundu zitalaren kontra*. Idazlea bertan egongo da. Kultur Etxean.

BEDIA

Hilaren 24ra arte, Bediako jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

LEMOA

Eskolako jaia. 17:00etan, gimnasia erritmiko erakusketea kiroldegian; 17:30ean, Txirritmokoen emonaldia; 18:00etan, Potx eta Lotx; 19:00etan, mikro irekia DBHkoentzat; 20:30ean, Kittu erromeria. Jatekoa eta edatekoa egongo da eskolako patioan.

UBIDE

Hilaren 24ra arte, Ubideko jaiak. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

BAGILAK 22
AREATZA

Euskal Herriko II. Gazteen Dantza Topaketak. 11:00etan, ginkanea; 15:30ean, dinamikea; 18:00etan, kalejjirea herrian zehar; 19:00etan, jantzen desafia plazan; 23:30ean,

erromeria Berritzu taldeagaz plazan.

ARTEA

20:00etan, Burbuilak taldearen kontzertua Herriko Bentan.

BEDIA

02:30ean eta 05:00etan, jaietatik Arratiako herrietara bueltetako autobusa, autobus geralekuan.

IGORRE

19:00etan, *Anbototik Gorbeia*ra bidaia musikala Lasarte Aretoan. Gorbeia Ensemble & Besaide Band, Aitzol Atutxa, Nerea Zuloaga, Areatzako Beti Gazte Dantza Taldea eta Dimako Bertso Eskolea. Aurkezlea: Eleder Iglesias.

ZEBERIO

08:30ean, Austarri Mendi Klubak antolatuta, astegoieneko mendi urtekerea. Galdeano-Lokiz-Aramendia-Irantzu-Azantza-Abarzuza.

BAGILAK 23
ARANTZAZU

18:00etan, sua prestatu; 20:00etan, sardinak eta saiheski errea; 22:00etan, sua.

AREATZA

Euskal Herriko II. Gazteen Dantza Topaketak. 10:00etan, Gorbeiara igoerea. 11:00etatik 14:30era, Artisautza Azokea; 12:30ean, kalejjirea herritik Nafarroa Kanta Taldeagaz; 19:00etan, *Mute* kale antzerkia Gudarien plazan; 20:00etan, sardinak Zubizarran. Ostean, sua.

ARTEA

20:00etan, San Juan sua eta sardina jana Santamañen.

DIMA

10:00etatik 14:00etara, Sorgintxo eskola-tailerreko inguruko eta sasoiko sendabelarren tailerra. 25 euro. Aldez aurretik izena emon tallersorgintxoak@gmail.com edo 635 139 863 telefonoan.

20:30ean, San Juan sua frontoia eta eskolearen artean. Sua isiotu, etxeko traste zaharrak erre eta txitxi-burduntzia egongo da.

IGORRE

San Juan auzoko jaiak. 12:00etan, jaien hasikerako txupina, ostean trikitilariak; 14:40ean, Marmitako Lehiaketako aurkezpena; 19:00etan, sardina jana; 20:30ean, Joselu Anaiak; 22:00etan, San Juan sua eta suziriak; 23:00etan, Joselu Anaiak.

LEMOA

19:30ean, San Juan sua Tallerretan. Umeentzako ekintzak eta janari eta edari salmentea.

ZEANURI

Altzuako sanjuanak. 10:00etan, txupina; 11:30ean, jantzariak; 12:30ean, mezea eta ostean barauskarria eta zozketea txistulariakaz; 18:00etan, Bola Txapelketea; 21:00etan, sardinak, txarri giharra eta txokolatea musikeagaz. Ilundutakoan, San Juan sua.

BAGILAK 24
ARANTZAZU

Hilaren 28ra arte, Udaleku Irekiak, 1. astea.

AREATZA

09:30etik 13:30era, hilaren 28ra arte Udaleku Irekiak 1. astea.

ARTEA

Hilaren 28ra arte, 08:00retatik 10:00etara, goiz txokoa eta 10:00etatik 14:00etara, Udaleku Irekiak, 1. astea.

IGORRE

Hilaren 28ra arte, 09:30etik 14:00etara,

begitu 430
2024ko bagilaren 17a

Arratiaren futbol kanpusa Urbieta zelaian.

San Juan auzoko jaiak. 13:00etan, mezea San Juan ermitan. Ostean trikitilariak.

LEMOA

19:00etan, Kalistenia masterclass lbaizabal parkean. Izena 674 945 426 telefonoan emon.

ZEBERIO

Hilaren 28ra arte, 10:00etatik 14:00etara, Udaleku Irekiak, 1. astea.

BAGILAK 25
ARTEA

18:30ean, erakin publikoen erabilerea Kultur Etxean.

BEDIA

Liburutegiko udako ordutegia garagarrilaren 24ra arte. Astelehenetik barikura 10:00etatik 13:00etara.

BAGILAK 27
ARANTZAZU

Hilaren 30era arte Arantzazuko jaiak. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

DIMA

Hilaren 30era arte Dimako jaiak. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

BAGILAK 28
ARANTZAZU

03:30ean, jaietatik Arratiako herrietara bueltetako autobusa, autobus geralekuan.

AREATZA

20:00etan, Duo Nakté taldearen kontzertua The Quiet Corner tabernan.

Lamino Kirol Klubak antolatuta, astegoieneko urtekerea Pirinioetara. 16:00etan, atubosusa.

BEDIA

Ludoteka zerbitzua zarratuko da urri lehenengoaren 5era arte.

ZEANURI

Undurragako jaiak. 21:00etan, jaien hasikerea eta txitxi-burduntzia.

BAGILAK 29
BEDIA

Eleizalde Bediako Jubiladu eta Pensionisten alkarteak antolatutako urtekerea Burgosera.

DIMA

02:30ean eta 05:00etan, jaietatik Arratiako herrietara bueltetako autobusa, autobus geralekuan.

LEMOA

07:00retan, Lemoa Txirrindulari Elkartearen urtekerea Mirador del Chivora. Arlonagusia futbol zelaiko aparkalekuan.

ZEANURI

Undurragako jaiak. Goizean zehar kalejjirea auzoan; 11:00etan, mezea eta ondoren barauskarria; 15:00etan, auzo bazkaria; 18:00etan, Eingo taldeagaz jantzaldia. Ondoren Igel Jaurtiketa Txapelketea.

BAGILAK 30
ARTEA

18:30ean, jaietarako herri jantzaren ensaioa gimnasioan Jai Batzordeak antolatuta.

ZEANURI

Undurragako jaiak. 13:00etan, Umeen Bola Txapelketea; 17:00etan, umeentzako jokoak; 18:00etan, VI. Andrazkoen eta Gizonezkoen Bola Txapelketea; 20:00etan, jaien amaierea, txokolatea eta zozketea.

KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

LONJEA ALOKATZEN DOT

Igorreko Olabarri auzoan dagoan lonja bat alokatzen dot kontratupean. Informazioa, 647 239 449 telefonon.

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Alkarren ondoan dagozan garaje bi alokatzen dira Igorreko Elexalde kaleko 47 zenbakian, On Egin-en ondoan. Biak batera ala banaka alokatu daitezke. Batera egin ezkeru prezioa egingo da. Interesdunek deitu 615 723 646 telefonora.

GARAJE PARTZELEA ALOKAIRUAN

Garaje partzela bat alokatzen da Igorren, anbulategi atzeko parkean. Interesatuak 629 307 400 telefonora deitu.

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

ELONDO EGURRA SALGAI

Elondo egurra saltzean da. 40 metro karratu. Neurriak: 1,50 metro luzeera, 7 cm zabalera eta 1,07 cm lodiera. Prezioa: 20 euro metro karratua. Interesdunek 630 363 971 telefonora deitu.

YOGA ETA COACHING

Gorputza indartu eta flexibilizatu, zure

amesetako etorkizuna sortu, zure barne bakea topatu eta bizitza orekatu. Online klaseak. Kontaktua: 672 873 452 (Nerea).

LANA

FRANTSESEKO KLASAK ONLINE

Adin eta maila guztiak. Bakarka zein taldeka. Frantses filologian graduatua. Interesdunek deitu: 610 374 854 (Nerea).

KLASE PARTIKULARRAK EMON ETA UMEAK ZAINTZEAN DODAZ

Lehen Hezkuntzakoei ingeles eta beste ikasgaietako eskola partikularrak emoten deutesdaz, martitzen, eguen edo bariku arrastietan. Umeak jagoteko be prest nago egun horreetan. Interesdunek deitu: 650 842 292.

ALEMAN ESKOLAK EMOTEN DIRA

Esperientzia luzeko alemaniarak adin eta maila guztietako aleman eskolak emoten ditu, online eta aurrez aurre. Interesdunek deitu 610 863 369 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

1

Garena txakolinaren 3 botila.

Josu Markina (Igorre)



2

Areatza Musik & Beer jaialdiko antolakuntzeak emondako kamiseta bana.


Lorea Igartua (Zeanuri)
Yolanda Goikoetxea (Dima)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUk 22 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus







BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

2024AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2024an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkartea, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



Oíndino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkartea Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefona: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: ☐ 40€ ☐ 60€ ☐ 80€

*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

begitu.eus

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.